

Heri Aldizkaria

otomotz

2002ko urria 80. alea



Zorionak!

ELKARRIZKETA: PELLO LIZARRALDE
SANTA ANASTASIAK ARGAZKITAN
IZERDI PATSETAN: HERRI KIROLAK



Elkarrekin ez bada,
 elkartu ezean,
 inolaz ezin ekin
 aurrerabidean.
 Aho batez laguntza
 eskertzeko unean
 ez ahaztu gure lema
 "ELKARREN BEHARREAN"



urretxu@ikastola.net
 www.kilometroak.com
 Pagoeta kalea, 4
 Tel: 943 72 00 26 / 943 72 21 12
 Fax: 943 72 57 22





Urretxuko monjen eskolan 50eko hamarkada erdialdean ateratako argazkia.

Monjak: Sor Maria eta Sor Baltasara.

Goiko lerroan: Benito, ..., M^a Carmen Rodriguez, Arantza Oñatibia, Arantza Berriotxoa, ..., Amaia Madariaga, Maite Etxeberria, ..., Izaskun Rodriguez, Arantza Samaniego eta Arantza Lizarralde.

Erdiko lerroan: Arantza Peinado, M^a Dolores Berriotxoa, Sarita Arrizabalaga, Inmaculada, Celia Alvarez, M^a Dolores Aramendi, M^a Jesus Berriotxoa, Tere Telleria, M.J. Bermejo, Itziar Telleria, Marianjeles Mendiola, M^a Carmen Nazario eta Guadalupe.

Beheko lerroan: Pili Rodriguez, ..., ..., Arantza Rodriguez, Marijose San Vicente, Itziar Zabalo, M^a Jose Bermejo, Conchi Azkarate, Marianjeles Urmeneta eta Olga Lekuona.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Aitor Gonzalezen balentria

Aitor Gonzalezek, duela urtebete berarekin hitz egiten izan ginenean, denboraldiko helburu nagusia Giroa zuela esan zigun. Hala, Giroan bikain ibili zen: bi etapa irabazi zituen eta Marmoladako etapen huts egin ez balu podiuma lortu izango luke. Baina urteko balentriarik handiena Vueltan lortu du zalantzarik gabe: hiru etapa eta sailkapen nagusia lortu ditu oso gaztetik Alacanteko San Vicente de Raspeig-en bizi den herritarrek.

Vuelta hasi aurretik inork gutxik hartzen zuen faborito bezala, baina berehala erakutsi zuen sasoian zegoela. Angliruko etaparen ostean istilua sortu bazen ere, orduan utzi zuen argi Aitorrek taldeburua bera izan behar zela.

Azkeneko erlojupekoa aurretik Roberto Herasekiko minutu eta zortzi segunduko atzerapena bazuen ere, sekulako erakustaldia egin eta itzulia irabaztea lortu zuen Santiago Bernabeu futbol



zelaian. Omenaldien garaian, Aitorrek eskerrak eman zizkien momentu txarretan bere babesak eskaini dioten guztiei. Hauen

guztien artean animoak ematek deitu dioten urretxuar eta zumarragarrik ere aipatu zituen. Zorionak Aitor!



Realeko jokalariai ere Kilometroak 2002rekin

Hilaren leian Igor Jauregi, Xabi Alonso eta Mikel Aranburu Realeko jokalariai izan ziren Urretxuko Pagoeta aretoan, Kilometroak 2002ko antolatzaileek gonbidaturik. Pagoetan bildu ziren gaztetxoek hiru jokalariai galderak egiteko aukera izan zuten, moderatzaile lanak bete zituzten Jon Balenziaga kazetari zumarratarren laguntzaz.

Besteak beste, Realeko jokalariaiek oraindik UEFA edo Txapeldunen Ligaz hitz egiteko goizegi dela, baina hala jarraitzen badute liga amaieran Realaren golik jaso gabe atezain gutxi geratuko direla esan zuten. Bestalde, hiruren artean, bai zelaian bai zelaitik kanpo, euskaraz aritzen direla ere argi utzi zuten.

Realeko jokalariai oso adeitsu agertu ziren gaztetxoekin eta bukaeran nahi adina poster eta kamiseta sinatu zituzten.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Zumarragak parrokia eliza berria du

Bi urte inguruko lanen ondoren, Zumarragak parrokia eliza berria du jada. Leturiatako parrokiaren inaugurazio ekitaldia irailaren 29an izan zen eta, bertan, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina izan zen.

Parrokia eliza berriak Zumarragako auzune hartako sinisdun guztien beharrak asetzeko adina egoitza ditu: tenplua, kapera, apezetxea, katekesirako 7 gela, ekitaldi aretoa, Caritas-entzat bulego eta biltegia, liburutegia, bulegoak...

Eraikinaren diseinua Iñigo Guibert arkitekтуak egin du eta barrualdea, berriz, Jose Luis Cobreros eskulturgileak prestatu du. Honek erretaula eta gurutze-bidearen 14 geldialdiak egin ditu. Sagrarioa, berriz, Antonio Oteizak (Jorgeren anaiak) egin du.

Parroki eliza jada inauguratuta dagoen arren, ekipamendu gastuei aurre egiteko abian jarritako kanpainak martxan jarraitzen du. Bankuak, erretaula, megafonia eta bestelakoak ordaintzen lagundu nahi baduzue, zuen dirulaguntzak parrokiaren bertan eman ditzakezue.



ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77


URRETXU

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Pintura eta argazki lehiaketetako sari banaketa



Hilaren 5ean Urretxu eta Zumarragako Udalek antolatutako Argazki Lehiaketako eta XIV. Pintura Lehiaketako sari banaketa izan zen Zumarragako Udaleko Batzar Aretoan. Lehiaketa hauek sona handia lortu dute estatu mailan eta aurten Euskal Herritik kanpoko margolari eta argazkilari askok parte hartu dute.

Pintura Lehiaketan 59 koadro aurkeztu dira. Epaimahaia Ricardo Azkargorta eta Javier Soto margolariek, Juan Antonio Gartzia kritikoak eta Gaspar galeriako Pepi Makazagak osatu dute. 900 euroko 1. saria Fernando Rodriguez bilbotarrak irabazi du eta 510 euroko bigarren saria, berriz, Marta Astrain donostiarrak.

Argazki Lehiaketan 178 lan aur-

keztu dira, 74 zuribeltzeko atalean eta 104 kolorezko atalean. Epaimahaia Jose Ramon Larrañaga, Kote Cabezudo, Javier Quirós eta Gorka Salmerón argazkilariak osatu dute. Hauen ustez zuribeltzeko argazki onena Jose Maria Mellado madrildarraren "Sin título II" izan da. Madrildarrak 210 euro eta trofeoa jaso ditu. Bigarren sariako 150 euroak eta diploma Bartzelonako Jose Lasalarentzat izan dira "Ladrillos" izeneko argazkiagatik. Hirugarren saria, 90 euro eta diploma, Josu Altzelai legazpiararentzat izan da "Hi ere dantzari" lanagatik.

Kolorezko argazkiei dagokionez, lehen saria Erreterriako Nieves Arrutirentzat izan da. Argazki sarituak "La

puerta del puerto" izenburua du. Bigarren eta hirugarren sariak Bartzelonako Alberto Porresentzat ("Manzanas") eta Legazpiko Josu Alzelairentzat ("On Kixoteren aluzinazioak I") izan dira.

Lan hauek guztiak eta epaimahaiak aukeratutako beste batzuk, Itarte Etxean ikusgai izan dira hilaren 13a arte. Pintura Lehiaketako epaileek ere koadro batzuk hautatu dituzte jendaurrean erakusteko. Hauek guztiak hilaren 18a bitartean ikusgai dira Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan. Hauen guztien artean, herritarren lanak ere badira: Maria Francoren "Bosque en otoño", Jaione Adradosen "Fenec", Jon Pinillosen "Trilogia estalia", eta David Elgearen "Aralar".

BILINTX

LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax:673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050



Fax: 764050 20570 BERGARA



KORTABERRI TABERNA



Pintxoak - otartekoak - kazolatxoak
Kalebarren



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F. URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA
ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70




UROLA

ELEKTRATRESNAK


☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Ba al dakizu herritar batek irabazi duela Espainiako Itzulia? Aitor Gonzalez ezagutzen al zenuen?



Iker Antia

Banekien bai. Gainera berak urretxuarren babesu jaso zuela esan zuen irratsaio batean. Dena den, nahiago nuen Euskalteleko Iban Mayok irabaztea.



Juanvi Villar

Vuelta dexente jarraitu dut eta urretxuarra zela jakin nuenean berak irabaztea nahi nuen, ni donostiarra naizen arren. Dena den, Real Madrileko kamiseta janztearena ez zitzaidan gustatu.



Eli Lete

Badakit Vuelta Aitor Gonzalezek irabazi duela eta poztu egin naiz. Are gehiago urretxuarra zela esan zuenean. Familiakoek asko jarraitu dute Espainiako Itzulia.



Umi Benito

Badakit bai, Espainiako Itzulia Aitor Gonzalezek irabazi duela. Urretxuarra zela jakin nuenean arreta gehiago jartzen hasi nintzen. Nire senarrak bere familia ezagutzen du.



Maria Dávila

Txirringularitza atsegin dudanez, Vuelta dexente jarraitu dut. Banekien Aitor herritarra zela eta berak edo Belokik irabaztea nahi nuen. Aitorren amona ezagutzen dut.



Olatz Sasieta

Espainiako Itzulia gehiegi jarraitu ez dudan arren, banekien hemen jaiotako bat oso ondo zebilela. Dena den, nire ustez valentziarra da.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOIA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUA.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

Antolaketa hartu duzuen 3.000 zumarratar eta urretxuarrei esker Kilometroak 2002 oso arrakastatsua izan da. Beraz, zertarako beste titular baten bila ibili. Zorionak guztiei. Zuei esker Urretxu-Zumarragak, euskarak eta ikastolak garai-pen handia lortu dute.



Lehenagotik ere urriaren 6a gure bi herrien historiara pasako zela argi baze-goen ere, eguraldi bikainaren eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorri ziren euskaltzaleen laguntzaz, Urretxu-Zumarragak sekula ikusi duten festarik handiena bizi genuen.

Goizeko 9:30etan, zinta mozketa ekitaldiari ekin zitzaion. Ikastolan bertan izan zen ekitaldi honetan, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako alkateak, Anjeles Iztueta eta Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako kultura eta hezkuntza sailburuak eta Antonio Campos eta Jose Ramon Zubizarreta Ikastolen Elkarteko lehendakari ohia eta lehendakaria izan ziren, besteak beste.

Ordurako milaka lagun jada zirku-itua egiten ari ziren. Guztira, 125.000 lagun inguru egunean zehar antolatzaileek zirkuituan zehar prestatutako gune ezberdinetan izan ziren.

Kanpotar gehienak txunditurik gelditu ziren Santa Barbara eta Antio ikusi

zituztenean. Askok ez zuten uste Urretxu eta Zumarragan halako parajerik egon zitekeenik. Etxaburuko guneak ere sekulako arrakasta izan zuen. Bertako zelaian zegoen jendetza Antiotik ere ikus zitekeen.

Herriko guneetan jende ugari ibili zen, batez ere arratsalde partean. Haurrek primeran pasa zuten Trintxerako gunean eurentzat antolatutako ikuskizun eta jolasetan. Gazteek, berriz, Lizeoko patioa lehertzeraino bete zuten Euskadi Gaztearen disko festan.

Urriaren 6tik gaurdaino pasa diren bi aste hauetan jende ugari deitu du Kilometroak 2002ko bulegora antolatzaileak zorientzeko. Antolatzaileak berak ere oso gustura daude egindako lanaz. Izan ere, Kilometroak 2002ren helburu guztiak bete dira.

Urretxu-Zumarraga Ikastolak bere eraikina eraberritzeko eta baliabide informatikoak eta teknologikoak eguneratzeko primeran etorriko zaion laguntza ekonomikoa jaso du. Kilometroak 2002ren

beste helburu bat mankomunidade osoan euskararen presentzia sendotzea eta indartzea izan da: euskararen eguneroko erabilera bultzatzea eta euskaraz bizi daitekeela aldarrikatzea. Hau lortzeko ehundaka lagun urte osoan lanean aritu dira eta urriaren 6an 100.000 lagun baino gehiagoren bultzada izan zuten. Urretxu eta zumarratar guztioi dagokigu orain, egunero eta uneoro euskara erabiliz, gure hizkuntzaren normalizazioa lortzea.

Kilometroak 2002ren azken helburua auzolana bultzatzea izan da. Herritarrek erronka hau aise gainditu dute. Lagun askok urte osoan talde lanean jardun dira. Urriaren 5ean eta 6an, berriz, ikusgarria izan zen herritarrek emandako erantzuna. Kilometroak 2002 festaren bezperan, benetan pozgarria izan zen kalera irtetea, edonon antolaketa lanean pozik zegoen jendea ikus baitzitekeen.

Hauet guztiei esker Kilometroak 2002k arrakasta itzela izan du. Zorionak denei eta segi lanean!



1



2

1. Antonio Camposek egın zuen zinta mozketan politikari ezagun ugari egon ziren.
 2. Hogeitabi urtez Ikastolen Federazioko lehendakaria izan den Antonio Camposek eta bere familiak omenaldi beroa jaso zuten Lizeoan.
 3. Lazkaoko San Benito Ikastolako ordezkariak Lizeoan jaso zuten lekukoa. Zorte on!
 4. Ekitaldi berean, Ikastolak izan dituen lehendakari guztiak ere omenduak izan ziren.



3




4



Kanpotar asko Kilometroak egunean izan ziren lehenengoz Antio eta Santa Barbaran. Ez zuten uste Urretxu-Zumarragan halako toki zoragarriarik egon zitekeenik. Kmk 2002 gure herriek sekula izan duten turismo kanpaina onena izan da.





Guztien gustuko kontzertuak izan ziren eta hauean sekulako jendetza bildu zen.

1. Gorka Herminosaren Ilunabar taldeak lehenengoz herrian jo zuen (ezin egun aproposagoa hautatu!).
2. Zuhaitzaren Soinua taldeko txalapartariak Etxaburun aritu ziren goizaldean.
3. Kuraiaokoez kontzertu gogorra eskaini zuten Etxaburun.
4. Kontzertu honetan milaka lagun leheritu arte saltoa aritu ziren. Seguridadekoek gogor lan egin behar izan zuten jendea eusteko. Zer zen hura!



BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbina.

- Dietetika
- Estetika


Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Hilabete honetako gaia


Herrian ere sekulako jendetza eta giroa izan zen, batez ere arratsalde partean. Trintxeran haurrek primeran pasa zuten. Euskadi enparantzan, Kalebarren-Areizagan eta Lizeoan, berriz, jende andana bildu zen ikuskizun ezberdinetan. 1. Jende ugari izan zen Euskadi enparantzako tonbolan txartelak erosten. Argazkiko bi hauek oso gustura zeuden, zer edo zer irabazi ote zuten? Azken egunotan ehundaka lagunek deitu dute Kmk 2002ko bulegora zozketetako zenbakien berri izateko eta zoriorenak emateko. 2. Tourmalet igotzeko baino denbora gehiago behar zen urriaren 6an Urretxuko aldapa igotzeko. Txistulariek behintzat lortu zuten behera heltzea!



Hona hemen lanean jardun zutenei gure omenaldi txikia.
 1. Lide, ez iezaguzu zure irudia erabiltzeagatik dirua eskatu, arren!
 2. Kilometroak egunean ere elkarrekin lanean!
 3. Gezurra dirudien arren, hauek ere lan egin zuten!
 4. Diru biltzaileek atseden txiki bat hartzeko astia izan zuten.
 5. Ez zekiten ondo arratsalde partean izango zuten lana!



Pello Lizarralde: “Gorroto dut idazlearen irudi erromantikoa”



Pello Lizarralderen azken nobelak (Larrepetit) irakurleen harrera bikaina jaso duen arren, idazleen artean estimu handiagoa izan du betidanik Zumarragako idazle honek. Horregatik, eta aspaldian Zumarragatik kanpo bizi delako, herrian jende askok ez du Pello Lizarralderen berri. Hau jakinik, aspaldian genuen Pellorekin solasaldia izateko gogoia. Berarekin izan genuen ordubeteko solasaldia, benetan atsegina izan zen.

Argazkiak: Euskaldunon Egunkaria

Zer oroitzen duzu Zumarragan igarotako urteez?

"Ciudad Jardin"-eko txalet batean zegoen parbulo eskolan hasi nituen ikasketak, orain osasun-etxe bat dela uste dut. Oso oroitzen onak ditut. Ondoren, La Sallera joan nintzen eta batxillergo ikasketak institutuan egin nituen.

Nola gogoratzen duzu garai hartako Zumarraga?


Niretzat trantsizio garaiko eta

aurreko Zumarraga infernua zen. Hits&Fits-ekoek deituta Itarte Etxean eman nuen hitzaldi batean hori esan nuen eta herritar bat haserretu egin zitzaidan, baina niretzat infernua zen. Latifundio industrialak iruditzen zitzaidan. "Señorito"-a Orbegozo zen eta jarraitzaileak La Salleko fraileak, merkataria... Gainera oso herri erdalduna zen. Euskaraz zekien jende asko ere, erdaraz egiteaz harro zen. Nire aita jeltzalea eta euskaltzalea zen eta berarengandik jaso zuen

euskalzaletasuna. Beste askorena politikan sartu zirenean piztu zen. Garai hartako Zumarragako giroa gorrotu nuen eta argi nuen alde egingo nuela eta ez nintzela sekula bueltatuko.

Baita zure hitza bete ere...

Batxilergoa amaitu ondoren, Donostiara joan nintzen magisteritza ikastera. Bokazioa 14-15 urterekin sartu zitzaidan. Irakasleek, ordea, filologia ikasteko esaten zidaten. Izan ere, ikastexeko



erredakzio lehiaketak, Coca-Cola lehiaketak... irabazten nituen. Baina nik, beste askok ez bezala, argi nuen zer ikasi nahi nuen.

Donostian nahi zenuena aurkitu al zenuen?

Unibertsitatera Francoren azken urtean joan nintzen: sistema, irakasleak... ezagutu eta nik nahi nuena ezingo nuela egin ikusi nuen. Donostiara nerabea nintzela joan nintzen eta gazte baten eta errelitatearen arteko talka pairatu nuen. Bestalde, Donostia hutsala, friboloa, iruditu zitzaidan. Bertan nazkanazka eginda bukatu nuen. Erromantizismoak jota edo, baserri giroa behar nuela sentitu nuen. Baserri giroa Azkoitian ezagutu nuen batez ere, aita hangoa baita.

Lortu al zenuen baserri giroko herri batera joatea?

Baserri inguruko eskola batera joan nahi nuen, unitarioetara (adin ezberdineko ikasleak klase berean dauden horietara). Nafarroan horretarako aukera eman zidaten arte Donostian lanean izan nintzen bi urtez: andamioan, okindegi batean... Ondoren, Baztanen 9 urte eman nituen. Nafarroako eskola publikoan klaseak euskaraz ematen lehenetakoa izan nintzen.

Ordutik irakaskuntzan aritu al zara?

Bai, orain Nafarroako Gobernuaren funtzionaria naiz eta euskarazko klaseak ematen ditut. Gehien dibertitzen nauena hizkuntzak direla konturatu naiz. Hizkuntza guztiak gustatzen zaizkit, istorioekin, hitz egitearekin... oso lotuta baitaude. Oso gustura nabil, ikasleak oso motibatuta etortzen baitira.

Zer iritzi duzu Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen jarreraz?

Begibistakoa da Nafarroako Gobernuaren euskararekiko politika desastrea dela. Ez dago politikarik, kutsu frankista duen gorrotoa baizik. Europa osoan ezin daiteke halakorik aurkitu. Ez dago itxaropenerako arrazoirik, gainera. Ez dut luzatu nahi, apoak eta sugeak soilik botako baintuzke.

Gai atseginagoetara joko dugu... nondik datorkizu idazaletasuna?

Idazteko grina oso gaztetatik izan dut. Magisteritzarako bokazioa oso gaztetan sartu zitzaidan, baina aldi batean kazetaritza ikasteko gogoia ere izan nuen. Lagun batek idaztea gustatzen bazitzaidan kazetaritza ez ikasteko esan zidan. Eskerrak eman beharrean nago, kazetaritzak ez baitu idazteko modurik onena eskaintzen.

Eta noiz konturatu zinen zure istorioak beste norbaitek ere irakurtzea nahi zenuela?

21-22 urterekin beste norbaitek nire istorioak irakurtzeko gogoia

nuela konturatu nintzen eta eskerrak eman nahi dizkiot Koldo Izagirri, horretarako aukera eman baitzidan eta beti oso jarrera ona erakutsi baitu. Publikatzeak idazle asko ezagutzeko aukera eman zidan: Ramon Saizarbitoria, Ramon Etxezarreta, Lourdes Auzmendi... Bestalde, berehala, Argian kolaborazioak idazten hasi nintzen eta bertan ere jende eskuzabal asko ezagutu nuen: Felix Ibagutxi, Joxemi Zumalabe... Zorionez ez nintzen gehiegi nabarmendu eta hori ona izan zen haizea ez hartzeko. Azkar ikusi nuen edozer gauza publikatzea ez dela ona. Beti konstantea izan naiz eta, publikatzearekin nire banidade puska asetua nuenez, ez dut sekula gustura utziko ez nauenik publikatuko.

“Euskarak Zumarragan aurrera egin du eta horrek poztu egiten nau”

Zer da zure ustez idazlea izatea?

Gorrito dut idazlearen irudi erromantikoa. Idazlea lan asko egin ondoren bere lanak publikatzen dituen da. Hori bai, lotsagabe samarra izan behar da, idatzi duzuna besteek irakurtzeko modukoa dela uste izateko. Hasieran, idazle bezala aurkezten nindutenean lotsa ematen zidan.

Ordutik ipuin liburuak, eleberrak eta poema liburuak idatzi eta argitaratu dituzu, zer duzu orain eskuartean?

Azken urtebetea oso gogorra izan da: Natalia Ginzburg-en liburu bat itzuli dut eta maiatzean "Larrepetit" publikatu nuen. Kolaborazio eskaerak izan ditut eta, estimatzen ditudan arren, ez ditut hartuko. Orain Ginzburg-en beste liburu bat itzultzen ari naiz. Sormen lanari dagokionez, liburu bat bukatuko dudala argi dudan arte ez naiz buru-belarri sartzen. Hurrengo liburua ez dakit nobela bat edo errelatu liburua izango den. Bizpahiru gauza ditut buruan eta denborarekin bat nabarmenduko da. Ideia batekin ametsetan hasten naizenean, horri eutsi behar diodan seinale.

Nola lan egiten duzu?

Ideia nagusia norberaren obsesioetatik dator eta nik dudan obsesiotik idazten dudala iruditzen zait. Idazten dudan guztia

antzekoa dela uste dut. Oinarria nola osatzen den, benetan misterioa da. Asko gustatzen zaizkit batasuna duten liburuak, baita ipuin liburuetan ere. Hori dela eta, dena lotuta dudan arte ez naiz idazten hasten. Idazterako orduan oso disziplinatua naiz. Inspiraziorik ez dago, egunero eseri behar da 2, 3, 4... orduz. Ordenadorearen edo paperaren aurrean jarriz gero beti ateratzen da zer edo zer. Osasunez ondo bazabiltza, telefonoak, norbaitekin gelditu izanak... soilik gelditzen zaitu. Idazten 9 bat hilabete ematen ditut eta beste bi zuzentzen.

Zeintzuk dira zure gustuko idazleak?

Idazle asko atsegin ditut. Beti asko irakurri dut, idazlea baino gehiago irakurlea naiz. Guztien gaintik Ramon Saizarbitoria atsegin dut, nigandik hurbilen ikusten dudana baita. Bestalde, Erdi Europakoak eta iparramerikarrak asko atsegin ditut. Memoria oso ona dut eta izenak botatzen hasiko banintz ez nintzateke geldituko.

Zer iruditzen zaizu Pello Lizarralde idazlea?

Nitaz zer esaten duten badakit. Batzuen aurrean fama oso ona dut eta laudorioak izan ditut. Idazle berezia izatearen fama dut, baina niri hau txiste bat iruditzen zait. Gauza ona bezala esaten dute, baina nik saiatzen naizen idazle bat besterik ez naizela esango nuke.

Pertsona normala, beraz...

Pertsona normala izatea oso gauza ona da bizitzarako. Lanbide bat izatea, egunero ogia erostea... Idazle profesionalak merkatuari lotuta daude, idaztearekin zerikusirik ez duten konpromisoak dituzte eta ez dute munduaren pertzepziorik. Idazle profesionala bazara, zure kotxearen bolantea managerrak eramaten du. Ikusi ditudan adibideek hori erakutsi didate. Profesionalek askotan ustezko amateurrek baino okerrago idazten dute. Beste lan bat izateak ez du esan nahi okerrago idatzi behar duzunik.

Bukatzeko, sarritan etortzen al zara herrira?

Hamabostean behin, hilean behin... Zumarragatik irteteko aukera izan nuen bezain pronto oso gutxitan bueltatzen nintzen. Familia berehala konturatu zen kanporako bidea hartu nahi nuela. Garai hartan gorrito nuen herrian bizi zen "señoritoen" giroa, baina ordutik herria asko aldatu da. Euskarak toki askotan atzera egin du, baina Zumarragan aurrera egin du eta horrek poztu egiten nau.

Muntaias e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Etxezarreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu


Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *


URKI

liburudenda


Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA



Santa Anastas



iak argazkitan





Hona hemen **Arantzazu** gustura asko bere anaia jaioberriarekin. **Asier**, horiek dira horiek masailak, argazkian ozta-ozta sartzen zara! Zorionak bioi eta zuen gurasoei eta segi horren alai!



Bi hauek urtero-urtero ateratzen ditugu eta urtero-urtero trajea eta korbata soinean dutela azaltzen dira. Francis Ford Coppolak "El padrino IV" filmarako casting-a antolatu duela dirudi.
Zorionak Miguel Angel eta Mikel!



Ainhoa, hori da hori irrifarrea! Non ari zaizu kilimak egiten atzean duzun hori? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Etzazu txintxo aurpegia jarri, badakigu bihurri samarra zarela eta! Zorionak **Aitor** ondo pasa urtebetetze eguna.



Osakidetzari ez diozue ordaintzen eta gero haurra etxean eduki behar... Iberdrolari ez ordaintzeagatik etxea kandlekin argitzen al duzue? "Gran Hermano"-n beharbada ez zineten oso ondo moldatuko, baina ETBko "Basetxea" saioan erraz gailenduko zinatekete! Zorionak **Aitor eta Bego!**



Amaia, garrasika hasi behar al duzu? Gure aurka behintzat ez duzu ezer izango... Amaia guztien artean lehenengo jarri zaitugu eta!



Amaia, ea egun hauetako batean beste argazki bat ematen diguzun urtero argazki bera ateratzen dugu eta! Zorionak eta ondo ibili!



Amaia, argazkilaria ezustean harripatu al zaitu? Hori da hori ikara aurpegia jarri duzuna! Zorionak eta ondo ibili!



Amaia, zu bai esker oneko emakumea! Opariak irekitzen ari zarela jartzen duzun ilusio aurpegia ikustea besterik ez dago hau jakiteko...



Armando, beti "armando kantxa" eta antzerako tontakeriak jartzen dizkizugu baina gizon lasasi askoa dirudizu! Zorionak eta segi horren alai.



Cristina, burmuina kaskezurraren ezkerladera mugitu al zaizu? Kontuz, aurki buruarekin lurra joko duzu eta! Zorionak eta ondo ibili!



Endika, eskerrak zure amak argazki txukuna utzi digun, bestela ez zuen barkamenik izango eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Enrique, txintxo aurpegia duzun arren, ziur zu ere nahiko alproja zarela! Izan ere, txintxoak dirudizuenak izaten zarete okerrak! Zorionak!



Esteban, aspirina asko hartzen al dituzu katekesiko haurrek eragiten dizuten buruko mina arintzeko? Zorionak eta ondo ibili!



Evaristo, txoria bisto, harria tirau, kakarrian pegau, buskando, buskando, denboria pasau! Hori da hori alproja aurpegia duzuna! Zorionak!



Iñigo, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Badaezpada ere ez gara zurekin sartuko, bestela berehala prestatuko duzu eta mendekua!



Irati, zapia buruan eta ibili munduan! Hori da hori irrifarrea duzuna! Zorionak eta segi horren irrifartsu!




Joaquin, bizkartzain lanetan hasi al zara? Piura horrekin ez dugu uste inor atzera botako duzunik... Zorionak eta ondo ibili!



Jokin, aingerutxo aurpegia duzu baina ez gara zutaz batere fio! Zorionak eta ea dirudien bezain ondo portatzen zaren!




Jon, ez iezaguzu horrela begiratu, aurren ere hemen azaltzearen errua zurea da eta! Zer euskaldun klase da bere hitza betetzen ez duena?



Josetxo, ea aurpegia pittin bat alaitzen duzun, argazkia poliziaren fitxategitik lortu dugula dirudi eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Laida, emakumeei parrokoak izaten uzten dizuetenerako prestatzen ari al zara? Hori da hori diskurtsoa irakurtzen ari zarena! Zorionak!



Maddi, hori da hori garraisia! Gorra utzi nahi al gaituzu? Gauean behintzat isil-isilik egon zaitez gurasoek lo egin behar dute eta! Zorionak!



Mari Carmen, ez da harrizkoa zu horren gustura izatea... hilabete honetan ez gaude kantaldi eta kontzertu faltan Urretxu-Zumarragan!



Maria Angeles, nori begira zaude "pikara" aurpegi hori jarrita? Pinudi asko dituen gustuko baseritarren bat aurkitu al duzu? Zorionak!



Maria Jesus, hori da hori irrifarrea! Oraingo honetan ere "merendolaren" batean harrapatuko zintuen argazkilaria! Zorionak eta ondo ibili!



Mikel, ea halako batean Nora isiltzea lortzen duzun, urtero zure alboan garrasika ateratzen da eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Nora, itxi ezazu behingoz ahoa. Bestela Bin Laden eta bere lagun hurrengo hegazkina zure ahoan sartuko da! Zorionak eta ondo ibili!



Paulo, jada hamar urte inguru dituzu eta oraindik behatza txupatzen al duzu? Amak piruletaren bat erosi beharko dizu... Zorionak!



Raquel, hori da hori irrifarrea! PPre iragarki baterako kontratatu zaituztela dirudi! Zorionak eta segi horren irrifartsu merezi du eta!



Sandra, zer demontretan ari zara? Gran Hermano-ko tentel horietako bat dirudizu txapel hori buruan duzula! Zorionak!



Sonia, nola demontre aguantatzen duzu astebururo hainbeste gazte txoribururen artean? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Urtzi, kamiseta txurria jantzi eta esku-pilotan jokatzen hasi al zara? Ez dakigu bera bezain ondo arituko zaren, baina Iban Etxanizen antza baduzu behintzat!

Herri kirolek herrikoiak izateari utzi ote diote?



Gero eta gazte gutxiago dira, zoritxarrez, herri kirolean parte hartzea animatzen direnak. Kirol askotan duela hamarkada batzuk gailurrera iritsi zirenek bertan jarraitzen dute eta taldekako kirolean herri askotako taldeak desagertu dira. Urretxu-Zumarragan ere, gazte gutxi dihardute herri kirolean eta garai bateko taldeak, Golden sokatira taldea esaterako, desagertu egin dira. Gure bi herriotan herri kirolak bizi duen egoeraz mintzatzeko, Angel Errazurekin, Angel Arrospidarekin, Ino Ugartebururekin eta Egoitz Armaolearekin izan gara. Angel Errazu eta Ino Ugarteburuk, herri kirolean aritzeaz gain, makina bat urte daramatzate herri kirol saioak antolatzen. Angel Arrospide, berriz, aizkolari txapelketa handiak hainbat alditan irabazia da eta Egoitz Armaolea, aitonaren lekukoa hartu eta idi probatan aritzen da.

Zer iritzi duzue herri kirolek bizi duten egoeraz?

Egoitz Armaolea: Nire ustez egoera ez da txar-txarra, baina ona ere ez.

Angel Errazu: Ni mutikoa nintzeneko garaietako apustu haiek, Tolosako, Donostiako... plazan milaka pertsona biltzen zituzten apustu haiek, falta dira. Gaurko gazteek kotxetan, mototan... amets egiten dute eta baserrietan ez dago garai bateko zailtasunik. Ez dute segan, jorran... aritu beharrik. Urretxu-Zumarragako Herri Kirol Elkarteak, guk ordainduta, mutikoak prestatzen ibili gara eta ezinezkoa dela ikusten da: gazteek sufritzea baino nahiago dituzte beste gauza batzuk.

Angel Arrospide: Kirolariak ere kulpa badu. Garai haietan hiru lau urtean behin apustu bat egiten genuen, exhibizio-rik ez zen izaten...

Ino Ugarteburu: Garai batean herriko festetan ez zen herri kirol jaialdirik izaten, ezta txapelketarik ere, ni gaztea nintzen garaian jendea herri kirolak ikusteko desiatzen egoten zen.

Angel Errazu: Egun indar handiena duena idi probak dira, Bizkaian batez


ere. Igo den herri kirol bakarra da. 12-13 urte nituela aitonarekin joaten nintzen Azkoitiko idi-probetara. Egun askoz ere publiko gutxiago hurbiltzen da.

Egoitz Armaolea: Egun Deba, Elorrio, Abadiño... soilik dira plaza onak. Gazte jende asko hasia da idi probatan.

Urretxu-Zumarragan egoera antzekoa al da?

Ino Ugarteburu: Gure elkarteak azkenaldian egin duen bakarra ekitaldiak antolatzea da, ez baitugu herrian herri kirolean arituko den jenderik.

Angel Errazu: Herrian aizkolari bat badugu, Elorriaga, nahiz eta urtetan aurrera doan. Baina gazterik ez dago. Egoera tristea da. 1981ean Euskadiko txapeladuna izan zen sokatira taldea ere 91n desagertu zen. Zergatik desagertu zen? Sokatirak sakrifizio handia eskatzen duela. Ez da aizkolari, harrijasotzaile edo probalari baten antzera. Hauek euren entrenamenduak iruditzen zaie modura eraman ditzakete, baina zortziko talde bat egiteko 14 bat lagun behar dira eta hauek guztiak koordinatzea oso zaila da. Sokatirak ez du



batere dirurik ematen, gainera. Nik eta neure inguruan ibili direnek diru asko gastatu dugu gure poltsikotik. Euskal Herrian alde batetik bestera ibili ginen geure autotan. Bestalde, goi mailan aritzeko disziplinari behar da. Pentsa, gazte asko sokatira taldean aritzen zen Goldenen sarrerak eta tragoak doan izateko. Hori dela eta, Goldeneko jabeek hori moztu egin behar zela esan genien. Egun sokatira talderik ez dago, baina beharbada hemendik urte batzuetara izango da. Duela urte asko zergatik funtzionatzen zuen Urretxun Santa Anastasietako astelehena eta orain zergatik ez? Orain kanpoko jendeari deitu behar izaten diogu...

Ino Ugarteburu: Duela hamar bat urte aizkoran egiteko kualidade onak zituzten bi gazte izan genituen. Jarraituz gero aurrera egingo zuten, baina nazkatu egin ziren. Oraindik ere aterako dira bazterren batean, baina lehenago aritutakoen semeak izango dira. Dena den, hauetako asko ere ez dira oso urrutira iritsi.

Angel Errazu: Ez dago herri kiroltan dabilzan gazte asko duen herririk. Urretxu eta Zumarraga baino bajuago dau den herri asko daude Gipuzkoa mailan. Egoitz idi-probetan elitean, dago.

Ino Ugarteburu: Aizkoran, Yurrebaso, Ugarteburu... egon dira. Herri asko okerrago daude. Gazteak ez datoz,

baina beste herrietan ezta ere.

Herrian jaialdiak antolatzen direnean, ordea, afizioa badagoela dirudi...

Ino Ugarteburu: Kirolzaleak badaude, baina praktikatzen duenik ez dago. Gainera, herri kirol probetan ikusten diren asko inguruko herrietatik eta baserrietatik etorriak dira. Sarrera jarriko balitz

“Gaurko gazteek kotxetan, mototan... amets egiten dute eta baserrietan ez dago garai bateko zailtasunik”

inor ez litzake joango. Hori dela eta, herri kirol elkartekook ahalik eta ikuskizunik onenak ekartzen saiatzen gara. Zumarragako Udalarari baserriarren eguna astelehenean izatea ez zela egokia esan genion, baina iaz Haimar harrijasotzailea ekarri genuen eta jendea etorri zen. Jendea joaten dela ikustea guretzat pozgarria da. Jende heldu gehiago joaten da, baina gazteak ere bai. Duela urte batzuk harrijasotzaile txapelketa bat jarri genuen

Zumarragako jaietan. Egun hartan koadriren bazkaria zen toki berean eta haiek begiratu ere ez zuten egin. Zenbat gazte joaten da Urrakiko rallya ikustera? Nik semea eta lagunak hara eramaten ditut. Nik ordainduta Tolosara aizkolariak ikustera joateko esaten diet eta ezetz esaten dute.

Lehenago eta egungo herri kirolen artean ezberdintasunik ikusten al duzue?

Angel Errazu: Kirol guztietan prestaketa asko aldatu da. Bestalde, aizkoran, esaterako, erraminta aldatu da. Harrijasotzeari dagokionez, oraingo harriak losak dira: lehen harrijasotzea zen eta orain karga jasotzea. Izan ere, barruan beruna dute. Lehen horri kargatzea esaten zitzaion. Bestalde, esan bezala, lehen apustuak soilik egoten ziren eta jendea joateko desiatzen egoten zen. Orain, berriz, ikusteko aukera gehiago dagoenez normala da jende gutxiago joatea.

Angel Arrospide: Hau duela hamabost bat urte izorratu zen. Ia-ia igandero saioak egoten ziren eta honek jendea aspertu egin zuen.

Ino Ugarteburu: Hori dela eta, aktibidade desberdinak ekartzen saiatzen gara jendea pixka bat motibatzen. Zaletuak edonor ikustera joango dira, baina gainontzekoak erakartzen saiatu beharra dugu. Hori dela eta, jende berria ekartzen



saiatzen gara.

Bizitza modernoak herri kirolen gainbeheran eragina izango zuen...

Angel Arrospide: Herri kirolak baserriko lanetatik datoz. Orain baserrietan ez dago ia gazterik.

Ino Ugarteburu: Eskulana galtzeak eragin handia izan du idi-probetan, esaterako. Lehen baserri gehienetan idiak izaten zituzten lanerako eta baserri gehienek zuten lehiaketetara aurkezteko moduko idi pare bat.

Egoitz Armaolea: Egun, berriz, idi-probetan aritzen direnak idiak horretarako propio dituztenak soilik dira.

Pilotak, ordea, arrakasta handiago du...

Ino Ugarteburu: Bai, baina Zumarraga eta Urretxuk lehen herrien arteko txapelketarako bi talde polit ateratzen zituzten. Gaur, berriz, ez da halakorik gertatzen.

Angel Arrospide: Nire ustez pilotan ere antzerako zer edo zer gertatzen da. Jendeak ez du sufritu nahi.

Angel Errazu: Harrijasotzea ere, nahiko ondo ikusten dut. Dozena erdi bat gazte badatoz.

Angel Arrospide: Besagain enpresa aizkolarien frogak antolatzeaz ere arduratzen da. Horretaz gain, komentatzen da, aizkolarriak alde batera edo bestera ibiltzeko ere

kontratatu dituela. Dena den, gauza guztietan antzera dabilta gauzak: pilotan ere 2. mailako partidetara ez doa inor.

Zer egin daiteke herri kirol mundua indarberritzeko?

Angel Arrospide: Afizioa behar da eta hau berezkoa izan behar da. Eskoletan saiatsen dira gazteak herri kirolekara zale-

“Norbaitek herri kirolean aritu nahi balu, gure laguntza guztia izango luke; gure bizitza baita”

tzen, baina ez du behar bezalako emaitzarik ematen. Herri kirolak gogorrak dira, baina kirol guztiak dira gogorrak. Fin ibiltzen saiatsen baldin bazara, kirol guztiak dira gogorrak. Aizkoran ibiltzea ez da gogorra, lehiatzea da gogorra. Konpetizioak beti behar du gogorra izan.

Ino Ugarteburu: Norbaitek herri kirolean aritu nahi balu, laguntza guztia izango luke. Guk gustura erakutsiko genioke eta lagunduko genioke, gure bizitza baita.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Pisua salgai Zumarragan

Soraluze, 1. eskuina

☎ 943 72 14 17

☎ 943 72 19 94



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5

☎ 943 726274

ZUMARRAGA



Josu Aztiria

Josu, Ikastolan eta Lizeoan unibertsitatea bitarteko ikasketak egin ondoren, Donostiara joan zen Deustuko Unibertsitatean Humanitateak Enpresa karrera egitera. Gauza batzuk gustukoak ez zituen arren, ezagututako jendearekin eta egindako ikasketekin oso gustura omen dago.

Ikasketak bukatu aurretik Lezoko Udalean lanean aritu zen, baina azken urtebe-te honetan ezagutu du gogor lan egitea zer den. Izan ere, Urretxu-Zumarraga Ikastolak Kilometroak 2002ko publizitate eta ekonomia arloetan lan egitea proposatu zion eta berak gogotsu eutsi zion erronkari. Josu izan da antolaketan aritu den herriko liberatu bakarra. Esperientzia gogorra baina ona izan omen da. "Gogorra azken hilabeteko tentsioa eta urte guztiko lana egun bakarrean jokatzea da. Onena, berriz, herritarren partehartzea eta ikastolan ezagutu dudak jendea da. Urriaren 7an kalean herritar askok zuten poza eta berotasuna ikustea oso pozgarria izan da".

Azken urtebetean Josu oso ezaguna egin da herriko merkatari eta enpresarien artean, baina lehenagotik ere ezaguna zen Urretxu-Zumarragako kultura eta kirol munduan. Izan ere, aspalditik Antziñako Ama Txistulari Taldeko kidea da, Urola futbol taldean jokatu zuen eta azken urteotan Zintzo-Mintzon lanean ere aritu da. Josuk dioenez, "musika mailan ez dut maila handirik lortu, baina oso momentu onak pasa ditut eta lagun oso onak egin ditut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Txirrindularia, uste dut.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egotea eta kirola egitea.

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga. Urretxu ere ez dago gaizki.

- "Mordo" ala Quevedo, zein da txistulari hobea?

Txistua jotzen baino, adarra jotzen dira horiek hobek. Aspaldian ez dut euren txistuen soinua entzuteko gozamenik izan.

-Txistulariak Euskal Herriko "folklorikoak" omen zarete...

Txistua beti tradizioarekin eta ideologia zehatz batekin lotu da. Baina instrumentuak berez ez dira ez aurrerakoiak ez atzerakoiak, jotzen duenaren jarrera da kontua.

-Zenbat kilometro egin dituzu aurten publizitate bila?

Nahiago dut Behobia-Donostia joan-itzulian egin.

-Emakumeek ezpatadantza dantzatzea ondo irudituko al litzaizuke?

Nire arrebak dantzatuko balu, bai. Ezpatadantza oso polita da, baina ez da esperientzia mistiko bat.

-Urretxuko txistulariak Zumarragakoak baino hobek dira.

Kantitatez gehiago dira, baina kalitatez ez. Futboleak irabazi egin ziguten, baina lehen minutuan lesionatu ninduten eta hala normala da.

-Santa Isabeletan txistulariz jantzita asko ligatzen al da?

Santa Isabelak izateagatik gauzak ez dira aldatzen. Zenbaitek berdin-berdin ligatzen dugu.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Konpakto bat.

-Eta jasotakoa?

Jertse bat eta liburu bat.

-Data bat?

Urriaren 7a.

-Neska eta mutil izen bana?

Libe eta Ander.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Ahal ditudan guztiak, baina gustuen Euskaldunon Egunkaria irakurtzen dut.

-Gustuko telebista saioa?

"Al filo de lo imposible".

-Bereziki gorroto duzuna?

"Bexamela".

-Liburu bat?

Manuel Rivasen "El lápiz del carpintero".

-Filme bat?

"Sospechosos habituales".

-Gustuko abestia?

Ruper Ordorikaren "Berandu dabilta".

-Soinu bat?

Haizea itsasoan.

-Usain bat?

Labetik atera berria dagoen ogia.

-Janari bat?

Arraultza frijituak piper gorriekin.

-Ura ala...

Garagardoa.

HEG ALDE AUTO

Kilometroak 2002rekin




Mugitegi, 27 URRETXU
☎ 943 72 51 37 / 943 72 58 64



IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR



UJER TERASTIA
PUGGA
IN CARTERIA
CONOCIDO

Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU